

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Jendaurrean jartzearen iragarkia, Zadorrako bide berdearen Langraiz Oka eta Trebiñoren arteko muga tartearen proiektuari buruzkoa

“Zadorrako Ibilbide Berdea (Langraiz Oka-Trebiñuko muga tartea)” proiektua Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzako Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak sustatzen du.

Jatorrizko proiektua azaroaren 7ko 319/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, Billoda eta Langraiz Oka arteko lehen zatiaren esleipenarekin batera.

Ingurumen eta hirigintza saileko foru diputatuaren 2016ko azaroaren 30eko 307/2016 Foru Aginduaren bidez onetsitako ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete zuten.

2019an, apirilaren 17ko 100/2019 Foru Aginduaren bidez onetsi zen eguneratzea, eta, ondoren, Vitoria-Gasteizko eratzun berdearen eta Krispiñako araztegiaren arteko tartea egin zen.

2024an, jatorrizko proiektua berriro eguneratu zen azaroaren 8ko 143/2024 Foru Aginduaren bidez, eta 2025ean Billoda-Trespuentes tartearen lehen fasea gauzatu zen. Tarte horren bigarren fasea 2026an egingo da.

Langraiz Oka eta Trebiñuko Konderriko muga lotuko dituen Zadorraren Ibilbide Berdearen azken tarteari heltzeko, proiektu espezifiko berri bat idatzi da, eta hori jendaurrean jarri behar da. Proiektu hori behin-behinean onartu zen Gobernu Kontseiluaren martxoaren 24ko 180/2026 Erabakiaren bidez.

Beraz, honako hau

EBAZTEN DUT

Jendaurrean jartzea “Zadorrako Ibilbide Berdea (Langraiz Oka-Trebiñuko muga tartea)” proiektua.

Proiektua osatzen duten agiriak eskuragarri egongo dira kontsultatzeko, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza, 4, 2. eskuina), Vitoria-Gasteizen.

Pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko entitateak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan adierazitako beste subjektu batzuk bitarteko elektronikoen bidez jarri behar dira harremanetan administrazio publikoekin, prozedura administratibo bateko edozein izapide gauzatzeko. Horregatik, jendaurrean jartzeko izapide honetan subjektu horietako edozeinek egingadako alegazioak nahitaez bide elektronikoz aurkeztu behar dira. Gainerakoek euskarri fisikoan ere egin dezakete, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 25a

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARÍA JOSÉ MADEIRA GARCÍA